

Bertsozale Elkartea gero(r)a mugitzen

**Hona, mural zabal bat
bertsozaleentzat:
gero abstrakturantz
sendo marra beltzak.
Hona, gure ildoak,
asmoak, ametsak...
Bertsolaritza nahi bat
denona, denetzat.
Gintzak errotzen gaitu
tira hodeiertzak,
lurra sortuko dugu
gure pausoentzat.**

Maialen Lujanbio Zugasti

Aurkibidea

Aldi berri bat marrazten	4
Misioa eta ikuspegia	5
Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoa	11
Hezkuntza	19
Plaza	23
Lanku	29
Ikerkuntza	32
Xenpelar Dokumentazio Zentroa	35
Feminismoa	39
Bertsolaritzaren ekosistema	42
Bertsozale Elkartearen egitura eta jardun eremuak	43
Arabako Bertsozale Elkartea	44
Bertsularien Lagunak Elkartea	47
Bizkaiko Bertsozale Elkartea	50
Gipuzkoako Bertsozale Elkartea	53
Nafarroako Bertsozale Elkartea	56
Proiektuak	59
Komunikazioa	66
Hedapena	71
Finantzak eta lankidetzak	76

Argitaratzailea: Bertsozale Elkartea


Argazkiak: Bertsozale Elkartea, Alberto Elozegi, Conny Beyreuther, Gaizka Peñafiel, Gari Garaialde, Jakub Szafranski

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Diseinua eta maketazioa: Jon Ander Artola

Hizkuntza zuzenketak: Saroi Jauregi

Argitaratze data: 2020ko udaberria



▶ Ikusi bideoa hemen

ALDI BERRI BAT MARRAZTEN

Hiztun komunitate txiki baten barruko kultur diziplina bat da bertsozaritza. Kultura eraldaketa prozesu gisa ulertzen dugu: balio sistema oso baten transmisiorako tresna. Garatzeko guneak hamarka dira bertsozaritzan: herriz herriko eskolak, oholtza gaineko lana, antolatzaileen ilusioa, irakasleak, zaleak... Borondatea sobera. Horietan eragiteko, hiru zehar-lerro une oro presente: feminismoa, belaunaldiartekotasuna eta lurraldetasuna. Epizentroan, Bertsozale Elkarteak. Bilgune bai, baina ez eragile bakar: sei elkarte eta enpresa bat, 125 soldatapeko langile eta borondatezko 100 langiletik gora bertsozaritza geroratzeko lanetan.

Aniztasun handia duen proiektua da gurea, askotarikoa eta etengabe aldatzen dabilena. Sistema biziak dira ekosistemak, bortxaz nahiz halabeharrez datozen aldaketen aurrean egokitzen dakitenak. Halaxe gabiltza gu ere, duela hogeita hamar urte jarri ziren oinarri sendoei esker. Garaira egokitzen asmatu izan du bertsozaritzak, gure egitekoa da, ilusio berriei forma emateaz gain, belaunaldi, herrialde, izaera eta ideia asko dituzten pertsonak mugimenduaren inguruan antolatzea.

Bizirik gauden seinale, bide hori askotarikoa izango da. Erritmo, desio eta nahi desberdinak topatuko ditugu bidean, eta elkarren arteko desberdintasunak aitortuz, orekak bilatuz eta elkar errespetatuz jarraituko dugu lanean. Nor bere errealitateetik abiatuta elkarrekin dihardugun eta helburu bera dugun mugimendua garelako.

Oreka, gurean eta gizartean, ezinbestekoa eta zaila da aldi berean. Egonkortutakoaren eta berritasunaren uztarketan hasiberriak gara koordinatzaile bikotea. Hemen gabiltza bi funanbulistaren pare. Soka gainean dagoenak badaki erori gabe ibiltzen: soka solteegi baldin badago, ezin ibili; tenkatuegi badago, aurki izango da erreboteren bat. Gure energia, ilusioa eta gaitasunak proiektuari eskaini nahi dizkiogu. Denbora eta dedikazioa eskatuko dizkigu, baina bidean ikasiko dugu, egunerokoan elkarrekin harremanetan egonez. Daukagun tokitik eta arduratik arituko gara, elkarte izatetik, martxan diren proiektuei jarraipena emanez eta berriak sortzeko ausardia hartuz.

Bertsozaleen ekosistemako elementu guztiek osatzen dute gure kasuan soka, eta gutako bakoitzari dagokigu proiektuaren, kideen eta taldearen arteko oreka hori bilatzea. Bai, sokara igota dauden kide guztien ardura da oreka. Hausnartuz eta begirada kritikoz begiratuko diegu bizitako esperientziei, baina arduraz jokatu dugu. Ziur gaude bidea aberatsa bezain polita izango dela.

Idoia Trenor Zulaika

Jon Agirresarobe Lopetegi

Harremanetarako: koordinazioa@bertsozale.eus

Misioa eta ikuspegia

Bertsozale Elkartea bertsozaritza geroratzeko sortutako gizarte mugimendua da. 1987. urtean sortu zen, eta, bertsozaritzaz arduratzen diren bestelako eragile guztiekin batera, bertsozaritza zaintzea, sustatzea, ikertzea eta haren transmisioa eta etorkizuna bermatzea da beraren egitekoa.

Irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta kontuan hartzen ditu tokian tokiko hizkuntzak eta gizartearen egoerak eta premiak.



Kokapena

Gizarte mugimendu gisa, bere baitan arduztuta eta autonomiaz funtzionatzen du. Elkartearen balioetako bat gizarte, administrazio eta enpresa erakundeekin lankidetzan aritzea da, beren kultur proposamenen garapenean parte hartuz eta ekarpenak eginez.

Eragin eremuak

Kulturgintzan eta euskalgintzan eragitea da Bertsozale Elkartearen asmoa, bertsozaritzaren geroratzea kulturgintzaren eta euskalgintzaren geroratzeari loturik baitago.

Euskarazko kultur adierazpide gisa, kultur sorkuntzan, eragiletzan eta diskurtsoan indar gehiago jartzea da Elkartearen nahietako bat, eta, aldi berean, eragile mota guztiekin lankidetzan aritzea.

*Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen ibilbide kronologikoa ikusgai da **hemen***



 Ikusi bideoa hemen

BERTSOZALE MUGIMENDUA KULTURGINTZAN

Ez da non gauden eta nora joan nahi dugun bakarrik. Geure burua non ikusten dugun eta non ikus gaitzaten gura dugun ere bada. Horregatik erabaki dugu, besteak beste, kulturgintzan indar handiagoa egitea datozen urteetan. Funtzio sozial bat dugulako, eta, beraz, erantzukizuna ere bai.

Bertsogintza sorkuntza baita, lehenengo eta behin. Sorkuntza adierazpide arrakastatsua euskal herrietan. Bertakotasun eta gaurkotasun handikoa. Eta adierazkide ugari dituena, lehen eta orain, hemen eta munduan, euskaraz eta erdaretan; hitzez, kantuz, jendaurreko sorkuntzan dabilzanak. Eta, hala ere, oraindik kostatu egiten zaigu bete-betean kulturgintzan ikus gaitzaten. Nekez kokatzen gaituzte administrazioek kultura sailetan; kultur eragile herritarrak sarri ahaztu ohi dira gutaz; ez dira bat edo bi gutxiesten gaituzten beste adierazpide batzuetako euskal sortzaileak. Geuri ere lotsa halakoren bat eragiten digu geure burua bete-betean kulturgintzan kokatzeak. Ez ei daukagu berezko diskurtsorik, zenbaitek dioenez. Oinarrizkoena hitzetara ekartzea, ordea, aski da bertsozale mugimenduaren ikuspegi indartsu bat formulatzeko, barrura zein kanpora begira. Euskal Herri triglosikoan eta aro globalizatuan, euskaraz goaz plazara. Askok euskaraz ez dakien herrian. Geroago eta euskaldun gehiago direnean espainolez edo frantsesez sozializatzen direnak. Eta kulturzale euskaldunek erdal sorkuntzak soilik ezagutzen eta kontsumitzen dituztenean.

Tradizio handiko adierazpide garaikidetu batean inprobisatzen dugu jendaurrean, ahozkoaren eta idatzizkoaren, herrikoia eta jasoaren arteko bereizketak lausotzen doazen garaian. Sakonak ditu erroak, baina, bereizkeriak, eta bertsogintzari aurrejuzgu ustez jasoekin begiratzen zaio sarri. Bertsolari eta bertsozaleak mugimendu autonomoan antolatu gara, herrietatik nazio mailara, kultura instituzionalizatuaren eta merkantilizatuaren garaian. Tentsio horretan ere, baina, ez gara bakarrak; ezagutzen ditugu esperientzia eraginkorrak beste adierazpide eta herrialde batzuetan. Baditugu oinarriak kulturaren ikuspegitik jauzi bat egiteko. Geuretik. Diskurtso indartsua egiteko; eta garatzeko. Sorkuntzan anbiziotsuagoak izateko; eta kritikoagoak. Posizio esanguratsuagoa emango diguten elkarlan sareak osatzeko; eta zabaltzeko. Bertsolaritza gerora mugitzeko.

Igor Elortza Aranoa

Jardun eremuak



Plaza

Bertsolarien plazaratzea sustatzeko ekimenak antolatu eta baliabideak jartzen ditugu: txapelketak, sariketak, topaketak...

Bertsolaritzaren azpiegitura indartzeko, Lanku Kultur Zerbitzuak enpresa sortu du Bertsozale Elkartek. Bertsoa oinarri hartuta, edozein kultur ekitaldi sortzeko eta antolatzeko giza baliabideak zein baliabide materialak kudeatzen ditu.

Aurrera begira, Bertsozale Elkartek sortzaileen autonomia zaindu eta bertsogintza garatzeko baldintzarik egokienak bilatu eta bermatu nahi ditu.

[Informazio gehiago...](#)



Hezkuntza

Bertsolaritza belaunaldiz belaunaldi biziberritzea da Bertsozale Elkartearen egitekoa. Mugimenduaren ekosistema osoan eragiten ahalegintzen gara.

Hezkuntzari dagokionez, bertso eskolen sorrera eta dinamika bultzatzen dugu; hezkuntza arautuan, bertsolaritza irakasgai gisa eskaintzen diegu milaka gaztetxori, eta aisialdirako eskaintza ere badugu: bertso udalekuak, barnetegiak...

Bertsozale Elkartean hezkuntza lana egiten ari garelako kontzientziatz eta arduraz ari gara.

[Informazio gehiago...](#)



Ikerkuntza

Bertsolaritzaren datu bilketa, azterketa eta garapena eragiteaz arduratzen gara Mintzola Ahozko Lantegiaren bitartez. Bertsolaritzaren ikerkuntza eragitea, euskaraz garatzen diren ahozko beste diziplinekiko zubiak eraikitzea eta gure kantu inprobisatua eta hari buruzko ezagutza munduan hedatzea eta guk mundukoak ezagutzea ditugu egiteko nagusi.

Ikerkuntza eragiteko, 1991. urtean Xenpelar Dokumentazio Zentroa sortu zuen Bertsozale Elkartek. Bertsolaritzaren ondarea hainbat euskarritan biltzen da bertan.

Aurrera begira, unibertsitateekin eta ikerkuntza eragileekin lankidetzan, bertsolaritzaren mugimendua eta bertsogintza garatzeko ikerketak martxan jartzen jarraituko da.

[Informazio gehiago...](#)

Jardun eremuak

Komunikazioa

Tentuz zaintzen du Elkarteak alor hau: komunikazioa ardatza da.

Harreman publikoei dagokienez, bertsolaritza geroratzeko lankidetzak bilatzea da gure oinarrizko printzipioetako bat, bertsolaritzako eragileekin zein gizarte, administrazio, eta enpresa esparruko erakundeekin.

Aurrerantzean, Bertsozale Elkarteak bere harreman publikoak, lankidetzak eta diskurtso zein balioak erakusteko ahalegina indartzea da asmoa.

[Informazio gehiago...](#)



Hedapena

Bertsolaritzaren zabalkundea ezinbestekoa da berau ezagutarazteko, izan Elkartearen beraren euskarrien bidez, izan lankide ditugun komunikabideen bidez. Hastapenetik, apustu handia egin du Elkarteak bertsolaritzaren hedapenean.

Aurrerantzean ere, bertsolaritza bere osotasunean garatzeko, hedapen egitasmo egokiena gauzatzea da asmoa.

[Informazio gehiago...](#)

Zehar- lerroak



Feminismoa

Bertsolaritzaren mugimendua parekidea izan dadin eragiteko ardura dugu; eredu izatea dagokio Bertsozale Elkarteari. Gogotsu ari gara lanean.

[Informazio gehiago...](#)

Lurraldetasuna

Euskararen lurralde osora hedatutako proiektua da gurea, eta nazioarteko ekimenak ere sustatzen ditugu. Betiere, tokian tokiko ezaugarriak eta erritmoak zainduko ditugu.

Belaunaldiartekotasuna

Adin guztietako kideen parte hartzea bultzatuko dugu. Ezinbestekoa izango da bertsolaritzaren katea eten ez dadin.

Jarduteko modua



Bere jarduteko moduetan eredugarri izatea du helburu Bertsozale Elkartek.


Bereziki:

- Proiektu erreferente eta kohesionatua garatzen jarraituz.
- Bertsolaritzaren mugimenduan eragile bakoitzaren autonomia zainduz.
- Bertso eskolak indartuz eta haiekiko harremana zainduz.
- Oinarri soziala zabalduz.
- Bertsolaritzaren ekosistema osoa indartuz.
- Autofinantzaketa eta egonkortasun finantzarioa landuz.
- Antolaketa modu indartsua eratuz, sentsibilitate oro proiektu bakar batean egituratuz.

Bertsozaletasunaren azterketa soziologikoa

Hirugarrenez, Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoa gauzatu dugu Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi eta Alfredo Retortillo UPV/EHUko ikertzaileekin elkarlanean. 2015-2018 urteen artean egin da. Azterketari buruzko argitalpena **eskuragarri dago** UPV/EHUren atarian.

Ikusi azterketaren emaitzei buruzko aurkezpen solasaldia.

 [Ikusi bideoa hemen](#)


Oro har, **bertsolaritza osasuntsu dagoela** ondorioztatu dute ikertzaileek.

Baditu **ahulguneak edo etorkizunean doitu beharreko alderdiak**; baita **arrikuak** ere.




Bertsolaritzaren bigarren goraldia bizitzen ari gara

Xenpelar Dokumentazio Zentroan hainbat urtez bildutako datuen arabera, 1990. urtetik gaur arte bertsolari kopurua hirukoiztu egin da, bertso saio kopurua laukoiztu, eta bertso saioetara joaten den lagun kopurua inoiz baino handiagoa da orain.




1. grafikoa. Bertso saio kopuruaren bilakaera (1990-2015)

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa Ikertzaileek landutako datuak



2. grafikoa. Bertsolari kopuruaren bilakaera (1990-2015)

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa Ikertzaileek landutako datuak




3. grafikoa. Bertso saioetako publikoaren bilakaera (1990-2015)

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa Ikertzaileek landutako datuak

Bertso saio kopuruaren hazkundean, formatu txikiko saioak nabarmentzen dira, eta horrek aniztasunerako joera islatzen du.

Zaleek, bertsogintza oro har jarraitu beharrean, nork bere gustuko saio motak eta bertsolariak aukeratzen dituzte.



Kanon artistikoa, polifoniaranzko joera

Bertsotarako guneak dibertsifikatu diren moduan, gero eta bertsokera gehiago eta gero eta gorputz ezberdin gehiago ateratzen dira oholtzara.


Askotariko ahotsen alde egiten ari da bertsolaritza. Honek erraztu egingo du publikoaren dibertsifikazioari eraginkortasunez erantzutea.

Bertsoa bizitzeko moduak dibertsifikatu arren, bere batasunari eusten dio bertsolaritzaren gizarte mugimenduak”.



Bertsolaritzaren jarraitzaile kopurua euskarazko beste kultur adierazpide batzuen mailan dago.

Zale kopurua handia da, dibertsifikatuta dago eta beste zenbait kultur adierazpiderekin harremanetan daude.



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (Zubiri, 2020; 2014)

Bertsolaritzak mota askotako jendea elkartzen du: adin, genero eta gustu kultural askotarikoa duen publikoa batzen du.

Kultura globalaren aurrean, zer?

Gaur egun ditugun bitarteko teknologikoei esker, kulturaren plaza mundu mailakoa da, eta euskaraz egiten den kulturak tarte txikia du. Arrisku handia da hain adierazpide zaurgarriarentzat.

Bertsolaritzak badu horri aurre egiteko giltza: proiektu soziokulturala.



Proiektu soziokulturala, funtsezkoa

Ikerketaren arabera, ekoizpen artistikoarekin eta hedapen kanalekin batera, proiektu soziokulturala eraiki izana garrantzitsua izan da bertsolaritza geroratzeko.

Bertsolaritza hazteko eta garatzeko espazioak sortzen asmatu da: bertso eskolak, aisialdirako jarduerak, bertso saioak, txapelketak, borondatezko langileen ekimenak...

Jendea gune horietan sozializatzen den heinean zaletzen da bertsolaritzarekin; partaidetzaren intentsitatea handitu ahala areagotzen da zaletasuna.



Gizarte mugimendua du sostengu

Bertsolaritzaren gainbehera sumatuta, haren oinarrian gauden kideok bat egin, antolatu eta gizarte mugimendu forma hartu dugu. Mugimendu horrek sortu eta sostengatu du proiektu soziokulturala, eta hori estrategikoa izan da adierazpidea garaira egokitzeko.

Eta aurrerantzean?


Ikerketaren ondorioek bi egiteko azpimarratzen dituzte etorkizuneko bidea irekitzeko asmoz:



Belaunaldi gazteen sarrera egoki bideratzea.



Emakumeen presentzia parekidetasun planora ekartzen asmatzea.




Bertsolaritzaren gizarte mugimenduan aritu izan direnek hasieratik landu izan dute belaunaldien arteko uztarketaren erronka.

Gizarte mugimendu askotan presente dagoen kezka da azken urteotako joera berriak nola txertatu.

Bertsolaritzak ere une hori bizi du, eta mugimenduak aldiro asmatu behar du bere burua egokitzen, belaunaldi berriek beren mundu ikuspegiaren araberrako ekarpenak egin ditzaten.

Generoaren eremuan, badago zer hobetu


Gainerako kultur adierazpideetan gertatzen den moduan, bertsolaritzan 18 urtetik beherakoen artean kopuruak oso parekatuta daude, baina, 18 urtetik gora, lau bertsolaritik bakarra da emakumea.



Emakume eta gizon bertsolarien kopurua, adinaren arabera.

Iturria: Xepelar Dokumentazio Zentroa. Ikertzaileek landutako datuak

Aldaketak gertatzen ari direla diote ikerketaren emaitzek. Emakume bertsolarien kopurua handitu egin da bertsolaritzak bere burua antolatu duenetik. Eragina izan dute bertso eskolek, emakume bertsolarien laguntasun sareek, haiek gaiari buruz egin duten lanketak, emakume bertsolariek eman duten ereduak... Baina,aldi berean, datuek iradokitzen dute kopurua % 20-25 artean egongokortu dela azken urteetan.



Emakume eta gizon bertsolarien kopuruen bilakaera eta bertso-saioetako parte hartzeen bilakaera, adinaren arabera.

Iturria: Xepelar Dokumentazio Zentroa. Ikertzaileek landutako datuak

Bestalde, publikoaren baitan gertatzen ari den aldaketa nabarmena da. Azken Txapelketa Nagusian, adibidez, emakumezkoak ziren erdia baino gehiago (% 53), eta emaitzek erakusten dute nahiago luketela emakume bertsolari gehiago ikusi oholzan.

Artikulatzen

Bertsolaritzak, historian zehar, hainbatetan jakin izan du garaira egokitzen. Gai izan da bere ibilbidean zenbait artikulazio(*) gauzatzeko, baina ez da berez gertatu. Proiektu soziokulturalak ahalbidetu du.



Xabier Amurizak esku hartze soziokulturala aldarrikatu zuen, bertsolaritza ez dela berezkoa, eraiki egiten dela; eta, bide batez, jardunerako zenbait tresna proposatu zituen.

Azken hamarkadetan bertsolaritzaren barruan hasi eta bukatu den artikulazio nabarmenenaren protagonistak **bertsolaritza klasikoa eta rockaren belaunaldia** izan dira.



Gaur egun, ikuskizun dago zer gertatuko den gazte belaunaldiei eta feminismoari lotutako artikulazioekin.

(*) Artikulatzea: ordura arte bi mundu edo gehiago direnak aterkipe berean elkartzea. Ez da bi bertsokera estilo fusionatzea; bi talde soziokulturelek bertsolaritzaren aterkipean elkar topatzea da: sortzaileak, publikoak, bizimoduak, mundu ikuskerak, gustuak, espazioak.

Hezkuntza

Bertsotan eta bertsolaritzaz **gozamenetik ikas** dadin nahi dugu. Horretarako, lanean ari gara ikastetxeetan zein bertso eskoletan eta aisialdiko ekintzetan.


Bertso eskolak

Haurrek zein helduek bertsoan jarduteko eta herrian bertso mugimendua sustatzeko gune nagusiak dira.




2019-2020 ikasturteko datuak

Sartu www.bertsoeskola.eus atarira!

 Ikusi bideoa hemen


Eman izena **bertso eskolan!**

 Ikusi bideoa hemen



Gazteen plazaratzea


Jendaurrean bertsoan aritzeko pausoa emateko plazak ahalbidetzen dizkiegu gazteei, ekimenak tokira eta adinera egokituta. Ikastolen Elkartearekin elkarlanean egiten dugun **Eskolartekoa** da ezagunena; lurralde bakoitzean bere bidea eginda, Euskal Herri guztiko gazteek parte hartzen duten egun handiarekin biribildu ohi da.

 ...ikusi, ikusi!



Aisialdia

Zenbait egunetako egonaldiak egiten ditugu: Gabonetako, udaberriko zein udako oporraldiak baliatzen ditugu barnetegi eta egonaldietarako. Nabarmen ezagun eta jendetsuak dira **bertso udalekuak**. 1998an sortu zirenetik, bertsozalaritzan murgiltzeko gune magikoa izaten dira gazte askorentzat; diotenez, ez dago behin bakarrik joan den gazterik...

 Ikusi bideoa hemen

Bertsolaritza ikastetxean

Ikastetxe publikoak, ikastolak, kristau eskolak...
bertsolaritza hainbat ikasgelatara sartu da
1986tik Bertsozale Elkarteko irakasleen eskutik.



50
irakasle



28.500
ikasle




463
ikastetxe

2019-2020 ikasturteko datuak




Egunean ditugu materiala eta irakasteko metodologiak, eta horiei eta irakasleen etengabeko trebakuntzari esker...


 www.bertsoikasgela.eus

 Bertsolaritza ikastetxean

...ikasgelan gogoz hartzen dute gazteek bertsolaritza! 28.500 ikasle inguru dira egun.

 [Ikusi bideoa hemen](#)

Topaketak, jaialdiak, kantaldiak... ikasturtearen amaieran 200 oholtzatan baino gehiagotan entzuten da bertsoa gazteen ahotik.

 [Ikusi bideoa hemen](#)

Etorkizuna marrazten



Aisialdiari garrantzi berezia eman nahi diogu, bertsolaritza, adin guztietan, gozamenetik bizitzeko, harreman sareak sortzeko...



Bertso eskolak sustatzen jarraituko dugu, eta haiekiko harremanak ere zainduko ditugu.



Oinarri pedagogikoetan, ikerkuntzan, formazioan eta materialgintzan jarriko dugu indarra.

Harremanetarako: **hezkuntza@bertsozale.eus**



 Ikusi bideoa hemen

EKOSISTEMA

Elkartearen Hezkuntza sailak bertsolaritzaren ekosistema osoa elikatu behar du; hori du bere egitekoa. Bertsozale Elkarte osoaren ardura da bertsolaritza geroratzea, eta Hezkuntza sailari dagokio horretarako ekosistema garatzea: hasi bertsozaleetatik eta antolatzaile, epaile, gai jartzaile, hezitzaile, borondatezko langile edo bertsolarietara.

Ekosistema “ingurune jakin bateko osagai fisiko eta bizidunek eta elkarren arteko harremanek osatzen duten sistema” da ohiko definizioan, lurterra edo urtarra izan litekeena. Gure ingurune jakina euskalgintza eta kulturagintza lirerateke, hizkuntzatik abiatuagatik; ekosistema lurterra da, hazkuntza gogoetaren mende jartzen jakin duelako; eta urtarra izaten daki, testuinguru berrira egokitzen delako, ura bezalaxe, zirrikitu bakoitza bustiz. Baina, ezer izatekotan, gure ekosistema humanoa da.

Hizkuntzaren inguruko gozamina transmititzetik hasi eta hazkuntza gogoetatsuen bueltan, hezkuntzan eragiten dugun kontzientziara heldu gara. Kontzientzia eta ardura dira gozamenari jartzen dizkiogun abizenak; aisialdiko sukaldariak ere hezitzaile direlako, gure ekosisteman. Eragina duenari kontzientzia eragiteak osatzen du zikloa, geruzaz geruza.

Testuingurua aldatzen ari da, baina bertsolaritzak lurta eta likido dirau. Egosistemak mugitzen gaituen garaian, ekosistemari begira jarraitzen dugu. Intuzio eta sen onari lanorduak, eskarmentua, profesionalizazioa eta gogoeta gehitu zaizkio urtez urte, oinarri pedagogikoetatik hasi eta zehar-lerro bakoitza pasaz, harreman moduetaraino.

Hezkuntza sailak bertsolaritzaren ekosistema osoa elikatu behar du. Eta zer diren gauzak, zikloaren bueltan, ekosistema osoa da Hezkuntza saila elikatu eta hobetu duena; hezkuntzan ari garen kontzientzia hartzeraren gaituena. Ardura horri erantzuteko ekosistema humanoak gogotsu helduko dio datozen hamabi urteetako zikloari. Hamaika ikasteko jaio gara eta.


Oihana Iguaran Barandiaran

Plaza



Askotariko bertso saioen **sustapena** garrantzitsua da bertsolaritzarentzat, eta bertsolariak plazaratzeko baldintza egokiak betetzea, ezinbestekoa.

Bertso saioen kopuruaren bilakaera (1990-2019)



Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Plazari jarraipena egiten diogu; eta plaza horietako batzuk sortu edo erraztu ere bai.



Txapelketa Nagusia eta lurraldeetakoak

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017 - Txapeldunaren Agurra

[Ikusi bideoa hemen](#)



Bertso Eguna

Bertso Eguna 2013

[Ikusi bideoa hemen](#)



Lanku Kultur Zerbitzuak

Lankuren eskaintza

[Ikusi bideoa hemen](#)

A photograph of a man in a dark suit standing on a stage, facing a large, dense crowd of people seated in bleachers. The scene is lit with stage lights, and the man is positioned in the center-right of the frame. The text is overlaid in the center of the image.

Herrialde guztietako bertsolarien plazaratzea

Etorkizuna marrazten



Plazaratzeari dagokionez, arreta berezia jarriko da...

Belaunaldiartekotasunean:

gazteen plazaratzea

Feminismoan:

emakumeen plazaratzea

Lurraldetasunean:

herrialde guztietako bertsolarien plazaratzea



Bertsogintzari buruzko askotariko ikerketak eta azterketa lanak sortu eta dibulгатuko dira.



Bertsolarien eta gai jartzaileen lan baldintzak hobetzeko pausoak emango dira.



Plazaren azterketa egingo dugu urtez urte.



Bertsolarien eta gai jartzaileen arteko harreman zubia indartu nahi dugu.



Epaile eta gai jartzaile taldeak zaindu, eta formazio jarraitua eskainiko zaie.



Egile eskubideei dagokienez, sortzaileei aholkularitza osoa eta eskubideak kudeatzeko lanabesak eskainiko zaizkie.



Bertsolarien eta beste kultur diziplina batzuetan ari diren eragileen arteko elkarlanak bultzatuko dira, kultura eraldaketarako eta sormenerako prozesu gisara ulertzen dugulako.

Harremanetarako: sustapena@bertsozale.eus



Kanon artistikoari dagokionez, bertsogintzan ANIZTASUNA da helburua, plaza, gorputz, ahots desberdinak ikusaraztea



▶ Ikusi bideoa hemen

PLAZA ANIZTASUNA

2013ko txapelketan biak ospatu ziren Markina-Xemeinen egun berean: Bertso Eskolen Eguna eta Txapelketa Nagusiko kanporaketa bat. Gogoan dut azken agurrean aipatu nuela txapelketa, izatekotan, bertsoaren teilatua litzatekeela; eta bertso eskolak oinarria. Baina zer dago tartean? Zenbat solairu dauzka eraikinak? Nolakoak? Ezagutzen al ditugu?

Bada, tartean bertsogintza osoa legoke, eta nagusiki plaza. Asteburueroko jarduna. Baita aste barrukoa ere. Baina susmoa dut eraikin horren kanpoko irudiarekin geratzen garela askotan. Plazaren irudi konkretu batekin. Eskaparatearekin. Plaza gero eta askotarikoagoa dela diogu, eta bada. Baina non ikusten da hori? Zer topatuko genuke eraikineko solairu eta gela bakoitzean sartzeko aukera bagenu?

Plaza, eraikin erraldoi bat da. Eta ez daukagu astirik dena ikusteko. Norbera deitzen gaituzten gelatara joaten gara kantura. Edo gure auzokoaren gelara entzutera. Edo atentzia eman digun gela baterako igogailua hartzera ausartzen gara noizean behin. Eta besterik ezean, telebista eta internetez erakusten dizkiguten gelatxoen irudiak ikusten ditugu...


Izan liteke garaia plaza hobeto ezagutzekoa. Edo gutxienez zein gutxi ezagutzen dugun kontzientzia hartzekoa, eta horrekiko jakin-min bat piztekoa. Plaza askotarikoa eta aberatsa delako, gutariko askok imajinatu ezin dugun punturaino.

Aniztasun horrek izango ditu ezaugarri jakin batzuk orokorrean, batzuk garaian garaikoak eta besteak tokian tokikoak. Has gaitezen bada, gure eraikin askotariko hau ezagutzeko bidean. Izan ere, etxea barrutik nolako den jakin gabe nekez dekoratu ahalko dugu gure gustura.

Jone Uria Albizuri

“... eta berriak jaioko dira”



 Ikusi bideoa hemen

FAUNA BERRI BAT BERTSO TXIKITAN

Bertsolaria animalia balitz, plaza litzateke haren habitat naturala. Plazan egiten du bere bizitzaren gehiengoa, plazan eraikitzen ditu harremanak, plazan trebatzen da, plazan elikatzen da eta hazten da.

Ekosistema horren ezaugarri bereziak direla eta bizirauten du bertsolariak, eta, zorionez, babestutako ingurunea da. Babesgune bat izanagatik, baina, guztiak (batez ere gazteek) ez dute bertan egoteko aukerarik, edo ez dira behar bezala garatzeko bezainbeste, eta, tamalez, plazatik kanpo ez dago bermatuta bertsolariaren biziraupena.

Oinordekotzarik bermatu ezean, espezieak desagertu egiten dira, eta hala gaudelako irudipena badut; noizean behin agertzen diren ale ederrenei tentuz begira, espezimen berriak txertatzeko ahalegina egin beharrean.

Kantaera, joera, gorputz, ideia eta ikuspuntu ezin desberdinagoak plazaratzen diren garaiotan, aldarrikapen eta borroka zaharrak ahaztu gabe berri eta beharrezkoak azaltzen diren garaiotan, onurak baino ez lekarzketek txertatze guzti horiek bertsoaren ekosistemarentzat.

Plaza askotarikoa da, lpar polokoak diruditen frontoietako jaialdietatik, bertso poteoak diren tropikoko oihaneraino. Badaude basamortuak, basoak, itsasoak eta mendikateak, guztienak direnak eta guztientzat direnak.

Berriak jaioko ziren, berriak jaioko ginen eta berriak jaioko dira, eta sinbiosia posible dela badakigu tarteka azaltzen diren egoeretan ikusten delako guztiak elkartzea aberasgarria dela, eta, horretaz gainera, ederra. Beraz, bila, presta edo molda dezagun ekosistema bertsolari guztiak (batez ere gazteak) bertan bizi daitezen, bertsolaritzak aurrera egingo badu behintzat.

Asier Galarza Garai

Lanku Kultur Zerbitzuak



**Bertsozale Elkarteak
bertsolaritzaren
azpiegitura indartzeko
sortutako zerbitzu
enpresa da.**

Bertsoa oinarritzat hartuta, edozein kultur ekitaldi sortzeko eta antolatzeko baliabideak kudeatzen ditugu. Herri mugimenduaren antolakuntza errespetatuz, bertsozalaritza indartzea dugu helburu.

Gure berri...     

Eskaintzen ditugun zerbitzuak



Sortzaileentzako aholkularitza zerbitzua: bertsolari, gai jartzaile...

Egile eskubideen, lan baldintzen eta sortzaileari eragiten dioten alderdiei buruzko gogoeta bultzatu eta aholkua eskaintzen dugu.



Bertso saio eta emanaldi berezien kontratazioa

Kultur programatzaile, bertso eskola, jai batzorde eta kultur dinamizatzaileentzako eskaintza zabal eta aberatsa dugu.



Azpiegiturak

Edozein ekitaldira egokitzen diren soinu ekipo eta muntaiak eskura jartzen ditugu.



Diseinua eta maketazioa

Askotariko ekimenen zabalkunderako irudiak sortu eta euskarri mota anitzetarako garapenak egiten ditugu. Argitalpenen diseinu eta maketazio lanak ere gauzatzen ditugu.



Argitaletxea

Liburuak, ikus-entzunezkoak, jolasak... Bertsolaritzaren inguruko argitalpenak sustatzen ditugu.



Lanku Kultur Zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea.
Gudarien etorbidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)


+34 943 26 07 55
lanku@lanku.eus
www.lanku.eus

Lanku Kultur Zerbitzuak enpresaren etekinak bertsolaritzan inbertitzen dira osorik:

Bertsozale Elkartearen proiektuak sustatzeko.

Bertsolarientzako formazioa eskaintzeko.

Sortzaileen lanak argitaratzeko bidea egiteko: bekak, adibidez.



 Ikusi bideoa hemen

LANKU EDO EDUKIONTZI HUTSAREN SINDROMEA

Hamazazpi urte bete dira Euskal Herriko Bertsozale Elkartek Lankuri atea zabaltzea erabaki zuenetik. «Atea zabaldu» diogu, batetik, bertso saioren kontrataziorako zerbitzuak lehenagotik hasi zuelako bere bidea Elkartearen barruan, eta, bestetik, urte hauetan guztietan inoiz ez diolako aterik itxi, unerik zailenetan epela eskainita eta sasoi hobeetan hauspoa emanda.

Izan ere, erronka ez zen makala. Orain dela hamazazpi urte Lankuk zama handia hartu zuen bere gain, lan kargagatik baino gehiago lan karga asmatzeko zereginagatik. Bertso saioren kontratazioa, emanaldi bereziak, ekoizpenak, diseinua, argitalpenak, egile eskubideak... Denari baietz esan, eta aurrera. Horrela jardun du urte luzetan, merkatu logika gupidagabearen gatibu inoiz, biziraupenaren kate makurrean sarriegi, eta, halere, gauzak bertsoaren mesedetan egiteko asmoz beti.

Inguruabar horretan, zalantzak hartu gaitu behin baino sarriago: zein da Lankuren egitekoa? Zerbitzura mugatu behar du? Ekimena behar du? Ekimena behar badu, zergatik hau eta ez beste hura? Gaur-gaurkoz erantzun argirik ez daukaten galdera horiek izan ditugu urtetan bidelagun.

Urteak ez dira alferrik igaro, baina. Egitasmoak nolabaiteko heldutasuna hartu du, eta heldutasun horrek sosegua ekarri du berarekin. Zalantzei patxadaz begiratzen diegu orain, betiko bizilagun izango ditugula jakitun, neurria hartu diegu, eta, garrantzitsuagoa dena, gure burua zaintzen ikasi dugu.

Lanku bertso munduak (oro har, kultur munduak) behar duen horixe da, bitartekari orain, ekintzaile gero eta aholkulari hurrengo. Urak arroetan bezala egin dute bere bidea Lankuren adar guztiek, saioek, ekoizpenek, argitalpenek eta aholkularitzak, bata bestearen makulu izateraino, gorputz bat eta bakarra osatuta; bata kale egiten badu, besteak atzetik doaz ilaran. Elkar elikatzen dute lan lerro guztiek, jardunean ez ezik, baita arlo ekonomikoan ere.

Ontzia edukiz bete-bete dago. Zer gehiago hartuko duen esango dute gogoeta pausatua eta bulkadak, ziurtasunak eta susmoak, ebidentziak eta intuizioak, ekimenak eta eskariak, eta denborarekin zentzua eta oreka ematen asmatuko dugu datorren guztiari.

Beñat Gaztelurrutia Munitxa

Ikerkuntza

Ikertuz eta ezagutza konpartituz, bertsogintzarentzako eta bertsolaritzaren mugimenduarentzako **aurrera begirako bideak zabaltzen** ditugu. Horretarako dihardugu harreman sarea hedatzen Mintzola Ahozko Lantegiari esker.



Ikertu

Bertsolaritza ikuspegi askotatik aztertzen duten ikertzaileak laguntzen ditugu: bai fokua bertsogintzan jartzen dutenak, bai bertsolaritzaren gizarte mugimendua aztertzen dutenak eta baita ere ahozko kultur sorkuntzak begiz jo dituztenak, unibertsitateak eskutik hartuta.

Bertsolaritzari buruzko hamaika ikerketa

[Ikusi bideoa hemen](#)

Zatoz ikertegira!

[Ikusi bideoa hemen](#)



Elkarrekin ezagutu

Unibertsitatearekin egindako ikerketak, sortzaileen gogoetak, eragiten ari direnen esperientzia... Bertsolaritza ezagutzeko modu asko dauzka gure mugimendua. Ezagutza hori elkarrekin sakontzeko eta hedatzeko guneak sortzen ditugu, ikastaro eta argitalpenen bidez. Ezagutza hori, gainera, ahozko kultur sorkuntzetan ari diren beste eragileenarekin ere partekatzen dugu.

Esperimentatzea gustuko dugu.

[Ikusi bideoa hemen](#)



Bertsolaritzak munduan eta mundua bertsolaritzan

Bertsolaritza bakana bada, ez ordea bakarra. Gure kantu inprobisatua eta hari buruzko ezagutza munduan hedatzea eta guk mundukoak ezagutzea bertsolaritza hobetzeko eta aberasteko aukera bat da.

Bertsoa ahoan eta ibili munduan

[Ikusi bideoa hemen](#)

Nazioarteko erakusleihoan

[Ikusi bideoa hemen](#)



Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bertsolaritzaren behatoki, bertsogintzako altxorren biltegi eta mugimenduaren oinarri: bildu, sailkatu eta gizarteratu egiten dugu ondarea. Ezagutu nahi?

1991tik

[Ikusi bideoa hemen](#)



Mintzola Ahozko Lantegia
Subijana etxea. Kale Nagusia, 70
20150 Amasa-Villabona
[Gipuzkoa] | (+34) 943 69 38 70

Gure berri...    

mintzola@mintzola.eus

Etorkizuna marrazten



Ahozko kultur mugimenduan eta sorkuntzan eragingo dugu.



Ikerkuntza eta formazio jarraitua egin eta eragingo dugu.



Ezagutzaren dibulgazioa sustatuko dugu.



Ikerketen aplikazioa eta gizarteratzea bultzatuko dugu, bertsolaritzan bezala bertsolaritzatik kanpoko esparruetan ere.



Ikerkuntza gauzatzeko sinergiak baliatuko ditugu: kulturako eta euskalgintzako kideekin, inprobisazio kantatukoekin, ikerketa erakundeekin...

Harremanetarako: ikerkuntza@bertsozale.eus



 Ikusi bideoa hemen

IKERTUZ AURRERA EGINEZ

“Ikerkuntza eta formazio jarraitua egin eta eragin”. Horixe Bertsozale Elkartearen 2006ko gogoeta estrategikoan Ikerkuntza sailari jarritako lehendabiziko helburua. Hamabi urteko zikloan, sendotasun handia hartu du sailak, eta, Mintzola Ahozko Lantegian egindako lanari eta sortutako aliantzei esker, zikloa bukatzerako ikerketa asko jarri ditugu martxan: bai ikerketa monografikoak, bai gradu bukaerako lanak eta baita doktoretza tesiak ere. Eta egin ere bai, Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoa tartean. Bertsolaritza unibertsitatera iritsi da, bertsolaritza bera helburu izanik (bertsogintzaren inguruan martxan dauden ikerketetan) eta baita bertsolaritzaren bidez beste hainbat esparru ikertzeko helburuz ere (garunaren funtzionamendua edo euskal kultura, adibidez).

2018ko gogoeta estrategikoari beste talaia batekin heldu genion, eta helburuak egoera berrira egokitu ditugu. Ikerketak martxan jarri ditugu, bai, baina ikerketa, guretzat, aurrera begiratzeko tresna bat da. Ikerketetan metatutako ezagutza bertsolaritza sormen diziplina eta gizarte mugimendu gisa garatzeko baliatzea izango da datozen hamabi urteotako helburua. Dena den, bertsolaritzaren inguruko ezagutza ez dugu unibertsitate mailako ikerketetan soilik ekoizten: bertsolariek banaka zein espazio konpartituetan ekoizten dute ezagutza, bertsolaritzaren inguruko eragileek ere bai, eta, noski, baita gure gizarte mugimenduaren eguneroko lanean ere. Ezagutza hori elkarrekin lantzeko espazio eta moduak sortzen jarraitzea dagokigu datozen hamabi urteotan, argitalpenen, ikastaroen, jardunaldien edo sormen ekintzen bidez, azken urteotan Mintzolako mintegien, UPV/EHUko Uda Ikastaroen edota Bertsolamintza jardunaldien bidez egin dugun moduan.

Eta, jakina, espazio horiek bertsolaritzatik harago ere garatzeko aukera daukagu gaur gaurkoz Mintzola Ahozko Lantegian. Bestelako kultur sorkuntzekin lanean eta esperimendatzen aritzeko espazioak zabalduz bertsolaritza mugimendu eta kultur diziplina gisa garatzea dugu helburua, etorkizunerako ildo berriak zabalduz.

Beñat Gaztelumendi Arandia
Miren Artetxe Sarasola

Xenpelar Dokumentazio Zentroa


Plazara irekitako behatoki dinamikoa



Zuk ere grabatutako saioen bat ekarri nahi diguzu?
Bertsolaritza ikertzeko asmotan?
Edota zure bertsokerarentzako ekarpen bila?
Zatoz, atea zabalik ditugu!

xenpelar@bertsozale.eus | +34 943 69 42 77

Bertsolaritzaren ondarea bildu, antolatu eta gizarteratzen du Xenpelarrek



Borondatezko biltzaileei esker, bertsoak, biografiak, kartelak... denetariko dokumentazioa daukagu!



Bertsolaritzaren Datu Basea

Katalogoa, eskuragarri sarean:
bdb.bertsozale.eus

Dokumentazio sarea eta zerbitzuak

Bertsolaritzari buruzko milaka dokumentu dira eskuragarri Xenpelar Dokumentazio Zentroan

Bertso doinutegia
-/+ 3.100 doinu

Bertsoak
-/+ 27.600 bertsoaldi

Plazako jarduna
-/+ 43.000 informazio
fitxa

Munduko kantu
inprobisatuen
mapa



Grabazioak
-/+ 20.100
grabazio

Biografiak
-/+ 3.000
sorkuntzari lotuak

xenpelar
DOKUMENTAZIO
ZENTROA

Argazkiak
-/+ 10.000
argazki eta bilduma

Liburutegia
-/+ 10.200 argitalpen,
artikulu akademiko, ...

Prensa bilduma
-/+ 38.000 prentsa
artikulu

Artxiboak
Bertsozale elkarteena
eta dohaintza pribatuak

Kartelak
-/+ 4.500 kartel
eta esku programa



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Kultur sorkuntzei loturiko dokumentazio egitasmoen esperientzia eta erronkak partekatzeko plaza eskaintzen dute solasaldiak.

Kulturartea Mapa

Munduko kantu inprobisatuen berri ematen duen datu basea eguneratzen ari gara etengabe: ia 100 adierazpide ditugu egun! Ezagutzen duzu samieraz egiten den juiggus-a? Edota Filipinetan egiten den makata?

Etorkizuna marrazten



Bertsolaritzaren mugimenduaren beharrei gaurkotasunez erantzungo dien behatokia bermatzeko lan egingo dugu.



Bertsolaritzako eragileekin harremanak sustatuz eta bilketa sarea indartuz, etorkizuneko ikerketak ahalbidetzeko informazioa eta dokumentazioa ziurtatuko ditugu.



Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eta beste ahozko kultur sorkuntzen dokumentazio egitasmoen arteko harremana eta elkarlana ahalbidetuko dugu.

Harremanetarako: xenpelar@bertsozale.eus



 Ikusi bideoa hemen

ELKARLANEAN, EZAGUTZA ANTOLATZEN ETA ERAIKITZEN

Bizitza arrasto txikienak sortzen du mugimendua, eta, mugimenduak bidea egiten duenean, pilatzen doaz esperientzia eta ezagutza. Egungoa jasotzea da ezagutzaren memoria idazteko lehen pausoa.

28 urteko ibilbidea osatua du Xenpelar Dokumentazio Zentroak, zeregin nagusia bertsolaritzaren ondarea bildu, antolatu eta gizarteratzea duela. Dokumentazio biltegia osatzen aritu gara geroztik, bertsolaritzaren memoria eraikitzen. Dokumentuak, lan tresnak, datuak eta datu baseak: dokumentazio egitasmo propioa sortu dugu, informazioa eta ezagutza antolatu eta eraiki egin behar baitira ondoren edukia erabilgarri jarri eta zabaltzeko. Bertsolaritza mugimenduak, sorkuntza kolektibo bat izanik, ezagutza ere modu kolektiboan jasotzea ezinbestekoa du. Plaza, harreman sareak, komunitatea... oinarrizkoa da bertsolaritzaren ekosistema osoa ezagutza horren artikulazioaren parte izatea, gure memoria hankamotz gera ez dadin. Bertsozaleak, bertsolariak, elkarteak, bertso-eskolak, hedabideak, administrazioa, antolatzaileak... mugimenduaren parte diren eragileen ikuspegi eta baliabideak elkarlanean jartzea.

Bilketa kolektibo hori elkar ezagutzuz, elkar elikatuz, elkarlanean eta elkarreraginean sortzea beharrezkoa da; bertsolaritzaren ekosistema bizi horretan zubiak eraikitzea eta zaintzea. Dokumentazio eta informazioaren truke txiki horietan baitago benetako ezagutza trukea eta ondare komun bizi honen aberastasuna. Bertsopararak, grabazioak, doinuak, kartelak, argazkiak, liburuak... komunitate zabal eta askotariko baten ondasun oparoa. Antolatutako bertsolaritzaren bilduma zabal hau, bertsolaritzaren corpusa, norbanakoen nahietarako, noski, baina, bereziki, premia edo behar kolektiboek erantzuteko dago. Ikertzeko, ikasteko, irakasteko, gozatze-ko, ez ahanzteko, zer garen ezagutzeko eta hobetzen joateko. Etenik gabe, gaurtik hasita.

Oihana Aranburu Balerdi

Feminismoa

Gure egituran eta egitasmoetan parekidetasuna oso aintzat hartzen ari gara, deseraikiz eta eraikiz.

Kontzientziaz ari gara lanean, eta pauso esanguratsuak eman ditugu azken hamarkadan, ikuspegi feminista txertatzeko.

Hainbat norbanako, talde eta erakunderen lanari esker egin da bidea. Oraindik badugu zer egin bertsozaritza parekidea izan dadin; gogotsu ari gara lanean.



Saretzea




Formazioa eta sentsibilizazioa



Egituran eta proiektuetan
begirada feminista



Ikerketa eta teorizazioa



Emanaldi berezien antolaketa



Gizarteratzea

Etorkizuna marrazten



Mugimenduko kideentzat, profil bakoitzari egokitutako formazioa bideratuko dugu.



Aniztasunari ikusgarritasuna emango diogu.

Harremanetarako:

koordinazioa@bertsozale.eus



Bertsozale Elkartearen egitura, harremanak eta rolak landuko ditugu, partaideon zaintza erdigunean jartzeko. Horretarako:

– Parte hartzeko prozesu bat egingo dugu, funtzionamendua, erabakiguneak eta antolamendua berrikusteko.

– Berdintasun plana egingo dugu, bertsolaritza parekide izateko bidearen ekintza plana zehazteko.

– Eraso matxisten kontrako protokoloa baliatuko dugu kasuak bideratzeko.



 Ikusi bideoa hemen

IRUDIA EZ DA LAUA

Bertsolaritza errealitate koloretsua, askotarikoa, eta mutatzailea da. Bizi dena eraldatu egiten da, eta bertsolaritzaren lurra ere mudatzen ari da, emeki. Errealitatea bera baino gehiago, hala ere, errealitate horri begiratzeke modua da aldatu dena. Aldatu gaituena.

Nola, irudi geometriko txiki eta koloretsuek osatutako lamina abstraktu haiek? Begirada ondo enfokatuz gero, bi dimentsioko argazki azalaren baitan hiru dimentsioko forma bat errebelatzen zen. Argazki zapal itxurakoak, barruan, ezkutuan, orografia bat zuela ohartzen zinen: bolumen nabarmenduak eta gunehondoratuak. Eta begiratu hutsean ez zen ikusten. Begiratzen ikasi egin behar zen, ikusteko. 3D begirada hori da feminismoak irakatsi diguna: bertsolaritzaren (gizartearen, munduaren...) erretratu ustez lau eta neutroari begiratu eta bere baitako erliebeak eta errelebantziak, maldak eta zuloak ikustekoa.

Irudia ez da laua.

Bertsolaritzan parte diren emakumeen* bizipenek, bizipenen irakurketak, talde lanketak, feminismoren ekarri teorikoak, plazako esperimentazioak... lurzorua desorekak agerian utzi ditu.

Bertsolaritzari -bere zabalean-, eta Bertsozale Elkarteari espresuki -gure egitura antolatua den aldetik-, errealitatearen hiru dimentsioko irakurketa egitea dagokio, bai etxe barruko funtzionamenduari begira eta baita kanporako bere proiektuetarako ere. Begirada feminista bere jardun guztietan txertatzea dagokio: egoera neutro itxurakoetan botere harremanak errebela daitezen; rol predeterminatuak, aukera desberdintasuna, edo errekonozimenduaren aldera kargak ezagutzeko. Eta haiek deseraikitzeke lanketan aitzindari izatea ere badagokio. Bertsolaritza parekidea izan dadin bere erantzukizuna hartu du EHBek. Prozesu luze eta etenik gabeko honek, formazioa eskatuko du, eta lanketa. Hasteko, Bertsolaritzaren Berdintasun Plana eta Erasoan Aurkako Protokoloa abiatu dira.


Bertso mugimenduaren espazioak eta soziologia askotarikoak dira, eta hala izango dira gerora ere. Izatez, emakumeen* sarrerari esker ari da hein handi batean bertsozaletasuna zabaltzen jendarte eta eremu bestelakoetara. Kontua ez da lurra berdintzea, bideak denontzat jartzea baizik.

Dena dugu irabazteko: ahotsak, ideiak, kantakerak, mundu ikuskerak, gorputzak, espazioak, bizipenak... Dena dugu denontzat irabazteko. Eta irabazian ateratzeaz gainera, justizia kontua da.


Orain, oinarri behar lukeena dugu helburu; gero, handik, aurrera egiteko.

Maialen Lujanbio Zugasti

Bertsozale Elkartearen egitura



Bertsozale Elkartearen jardun eremuak



Arabako Bertsozale Elkartea

“Gaur egun, bertsolaritza euskararen erabileraren, berreskuratzearen eta indartzearen sinonimo da Araban”



Gure berri...    

Lautadatik Arabako Errioxaraino; euskaraz gozatzen, bertsolaritzarekin errimatzen eta jolasten

1994

sorrera

172

bazkide

3.500

ikasle,
68 ikastetxetan

206

ikasle,
10 bertso-eskolatan

160

bertso saio
urtean

Datuak: 2019-2020 ikasturtekoak




Transmisio naturala
berreskuratzen



Ezin hobeto pasatzen!



Plazan bertsoa ohiko
bilakatzen



Bertsoaren ezagutzari
bidea irekitzen

Egitasmoak:

- Altxa Kopla Hori!
- Araba eta Gasteiz Bertsozale
- Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa
- Arabako Bertsolari Txapelketa

- Arabako Eskolartekoa
- Bertsoa Bizi Gazte
- Bertxoko Sariketa
- Oholtzapetik, entzulea epaile

+ gehiago ikusteko, egin klik hemen



Sar zaitetz
Arabako
bertsolaritzaren
mapara!


Pausoz pauso!

- 1982** Aiaraldeko eta Gasteizko bertso-
eskolen sorrera
- 1984** Arabako I. Bertsolari Txapelketa
- 1990** Prudentzio Deuna Sariketaren
hasiera, 2001era arte
- 1997** Irakaskuntzako proiektuaren
hastapenak
- 2002** Arabako II. Bertsolari Txapelketa, egun
ezagutzen dugunaren aitzindaria
- 2010** Arabako Bertso Kuadrilla Arteko
I. Txapelketa



Harremanetarako:
araba@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/araba

Tel. (+34) 945 01 05 05
Benito Pérez Galdós, z/g. 01002 Gasteiz



 Ikusi bideoa hemen

BAGARELAKO, IZANGO GARE

Nola azaldu arabarron errealitatea eta bertan egiten dugun lana? Lau datu hotz emanda hasi, eta ea nora garamatzen bidaiak.

Euskal Autonomia Erkidegoaz ari garela, Araba da herrialde handiena, bai zabaleran eta baita herri kopuruan ere; txikiena, ordea, biztanle kopuruari dagokionez. Gipuzkoaren aldean populazioaren erdia du, eta Bizkaiaren herena inguru. Eta biztanleria horren banaketari begiratuta, Gasteizen % 75 bizi da; beste bi hiriburuetan, % 25-30. Eta hala ere, Bilbon jada Araba osoan baino jende gehiago bizi da.

Errealitate horri ezaugarri soziolinguistikoak gehitu behar dizkiogu. Pozteko moduan eta nabarmen igotzen ari den arren, euskararen hitzun kopurua urria da leku asko eta askotan. Uste baino gertuago dugu Araban, oro har, euskara galdu zeneko garaia. Idatzi askotan irakur daiteke XVIII. mendearen amaieran oraindik ere itzultzaileak behar izaten zituela herriak lege edota administrazio arazoei aurre egiteko; eta orduan ere, bazen olerkari euskaldunik.

Bertsozale elkarteak sortu ziren garaian, ordea, erreferenteak falta genituen Araban, transmisio natural ezaren ondorioz, eta gure lan eskemak bertsogintza tradizionalari lotu genizkion. Gure herrialdeari lotutako ezaugarri desberdinengatik, ordea (populazioa, alderdi soziolinguistiko...), ohartu ginen herrialde batean funtzionatzen zuena gurean ez zela eraginkorra. Gertuko tradizio horiek ez izateak, aldiz, askatasuna eman zigun gure herrian katerik gabe gauza berri eta desberdinak probatzen hasteko. Hasierako konplexuak gaindituta, gure bide propioa egiteari ekin genion: euskara berrerabiltzen hasi ziren lekuetara bertsoa eramaten, ikastaroak antolatzen, gazteei aisialdi ekintzak eskaintzen... Eta hara non, erreferenterik ez genuenak erreferente bihurtu ginen.


Gaur egun, Elkartearen izena euskararen erabileraren, berreskuratzearen eta indartzearen sinonimo da Araban. Bertsolaritzak ez dio bakarrik kulturatik eskaintza egiten herrialdeari; euskararen erabileraren bermatzaile eta zabaltzailea da, galdutako espazioak berreskuratuta, daudenak indartu eta berrietara salto egiteko.

Laguniezaguzu bidaia honetan.

Ekaitz Elorriaga Anduaga

Bertsularien Lagunak Elkartea

“Gazteek mugak gainditzen dituzte eta handik beren mundua ekartzen digute plazara”



Gure berri...     

Bertsolaritzaren irakaskuntzako eta bertso plazak sortzeko indarrak batu ditugu: gazteak plazaratzen ari gara.

1980

sorrera

119

bazkide

1.530

ikasle, Seaskako ikastoletan zein ikastetxe elebidunetan

195

ikasle, 29 bertso eskolatan, 21 herritan

120

bat saio urtean; 2013tik, 30 bat saio laguntzen ditugu Euskal Kultur Erakundearekin



Sar zaitez bertsolaritzaren mapara!

Datuak: 2019-2020 uikasturtekoak



Egitasmoak:

- Adin Adin
- Bertsulariak Ikastoletan
- Bertsu Eskolen Eguna
- Bertsulari Tiki Egunak
- Bertsu topaketak
- Elebidunen Besta Egunak
- Eskolartekoa
- Haizea Dator
- Hernandorena Bertsu Sariketa
- Punttuka Irratsaioa
- Taldekako Xilaba
- Xilaba Xapelketa

+ *gehiago ikusteko, egin klik hemen*

Bagoaz aitzina...

- 1981** Bertso eskolen sorrera
- 1984** I. Errexil Saria Urruñan
- 1998** Lehen bertso udalekuak
- 2005** Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmena
- 2008** I. Xilaba Xapelketa
- 2011** Ikastolen Kooperatibarekin hitzarmena
- 2015** Hego Lapurdi Herri Elkargoarekin hitzarmena
- 2018** Taldekako Xilabaren hasiera
- 2019** Euskal Hirigune Elkargoarekin hitzarmena




Harremanetarako:


bertsularien-lagunak@bertsozale.eus

www.bertsozale.eus/xiberoa-lapurdi-baxenabarre

Tel. (+33) (0) 559 54 15 04

Larralde - Amotze auzoa. 64310 Senpere



 Ikusi bideoa hemen

BADATOR HAIZEA

Sohüta, Donapaleu, Angelu eta Hendaia artean bertsoa ari du. Haur eta gazteak astero trebatzen dira he-
mezortzi herritan, hiru topaketa behar dira denak elkartzeko. Udalekuetan Euskal Herri guziko lagunak egiten
dituzte, nahi dutenak Eskolartekoan entseatzen dira, irratsaio batean parte hartzen dute, plazaratzeko aukera
ematen zaie... ederra da, bertsoa ari du!

Irakasle-eragile taldeak gauzatzen du hau egunerokoan, bertsozale andana batek urte guzian zehar. Ilusioz eta
arduraz koordinaturik. Larraldetik hiru lurraldetara hedatzen dugu proiektu hau. Lana partekatuz, gogoetatze-
ko elkartuz, esperientziak trukaturik, herrira egokituz.

Haurregana daramagu bertsoa ikastorduetan, klaseak amaitzean herrian biltzera animatzen dira asko.
Bertso eskolan hasi eta etxean ari dira gero; zenbaitek lagunartean ere segitzen dute. Gaztetuz, mugak gain-
ditzen dituzte, eta handik beren mundua ekartzen digute plazara.

Plazaratzea sustatzen dugu. Saio antolatzaileak lagunduz eta saioak antolatuz; haiek hedatuz eta gordez.
Gogotsuari aukera eskaintzen diogu, eta parte hartzaileak babesten ditugu.

Poztekoa da, euskarak eman urrats bakotx bertsoaritzak abaila hartu du. Hezkuntza arautuak toki bat egin
dio gure irakasleen lanari, erakundeekin harremanak egonkortu ditugu, Hirigune Elkargoak kultur arloan egiten
dugun ekarpena onesten du. Ari gira lanean, eta ohartzen ari dira gure lanaz. Euskarari urratsak emanarazten
segiko dugu, guretik, bertze eragileekin konfederazioan. Bertsoa ari dadin, zaleak adi dezan.

Xumai Murua Berra

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

“Bakoitzak bere esparrutik, bere arduratik
eta bestearen iritziak kontuan hartuta,
ederra da eraiki dena: sare erraldoia sortu
dugu Bizkaian”



Gure berri...    

Sarea eskualde guztietara zabalduz eta gazteenei plazetarako bidea erraztuz.

1983

sorrera

670

bazkide

9.803

ikasle,
200 ikastetxetan

249

ikasle, bertso-
eskoletarako zubi
diren bat-bateko
26 taldetan

Datuak: 2019-2020 ikasturtekoak



Sar zaitez
Bizkaiko
bertsolaritzaren
mapara!



Eskolatik plazara, Eskolartekoa eta Bertsolari Gazteen BBK Sariketea



Sakontze Bertso Eskola eta Plazara!



Eskualdeko txapelketak, Taldekakoa eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa



Feminismoa lantzen: lantaldearen, gai jartzaileen eta epaileen formakuntzak, Zilekoa...

Egitasmoak:

- Barnetegiak
- Bertsolari Gazteen BBK Sariketea
- Bertso topaketak
- Bizkaiko Bertsolari Txapelketa
- Bizkaiko Eskolartekoa
- Eskolatik plazara
- Kantaldiak
- Plazara!
- Sakontze Bertso Eskola
- Taldekako txapelketa
- Eskualdeetako txapelketak

+ *gehiago ikusteko, egin klik hemen*


Urratsez urrats


- 1929-30** Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren hastapenak
- 1958** Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren hasiera
- 1983** Elkartearen sorrera
- 1984** Bertsolaritza Bilboko ikastetxeetara
- 1987-98** Araba-Bizkaia Bertsolari Txapelketa
- 1993** Bertsolari Gazteen BBK Sariketearen sorrera
- 2002** Elkarte aisialdi proiektua lantzen
- 2016** Bizkaiko Taldekakoaren sorrera



Harremanetarako:
bizkaia@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/bizkaia

Tel. (+34) 946 81 27 11
Zabale kalea, 9 atzea. 48200 Durango



 Ikusi bideoa hemen

BIZKAITIK DATOR BERRIA

Lekukoa ematear nagoela, esku onetan uzten dut Bizkaia. Lantalde indartsu eta egonkortua, eta zuzendaritza bera ere zabala eta askotarikoa izatea lortu dugu. Egunerokoa, hezkuntza arautuan daukagun proiektuak eskatzen digu indar eta ardura gehien. Azken urteotan, gainera, irakasle izatetik eragile izatera pasatu dira lantaldeko kideak. Bakoitzak bere esparrutik, bere arduratik, eta bestearen iritzia kontutan hartuz, ederra da eraiki dena. Antolatze modu berriak, gainera, gauza asko erraztu dizkigu, eta aurrerapausoak eman dira.

Hezkuntza arautuko proiektua urte luzez proiektu oso estimatua izan da, eta Bizkaiko eskualde guztietara zabaltzea lortu da. Jendartearen eraldaketek moldaketak egitea eskatu digute, eta, topatutako zailtasunak erronka modura hartuta, sare erraldoia sortu dugu Bizkaian.

Sustapen arloan, proiektuz proiektu egokitzapenak egin ditugu: Bizkaiko Txapelketa birpentsatu, Taldekakoa sortu eta eskualdeko txapelketak ere moldatu.

Amaitzeko, balioa ematen diegun zehar-lerroak arlo eta proiektu guztietan presente izatearen kontzientzia eta ardura hartu dugu, horretarako, bereziki, proiektuak sortuta: Zilekoa, adibidez.

Erronka ederrekin uzten dut lekukoa!

Asier Ibaibarriaga Apoita

Gipuzkoako Bertsozale Elkartea

“Garrantzitsua da bertso eskolak erdigunean jartzea eta haien beharrak kontuan hartzea. Hala nahi dutenei egituratzen lagundu eta behar dituzten baliabideak eskura jartzea dagokigu”



Gure berri...    

Tokian tokiko egiturak bultzatzen ari gara: bertso eskolak ez dira soilik bertsoan ikasteko guneak, baita bertsoaren oihartzuna bailarara zabaltzeko bidaideak ere.

1993

sorrera

1.323

bazkide

11.997

ikasle,
145 ikastetxetan

597

ikasle,
39 bertso eskolatan

Datuak: 2019-2020 ikasturtekoak



Egitasmoak:

- Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna
- Gipuzkoako Eskolartekoa
- Gazteen egonaldiak
- Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa
- Herriarteko Txapelketa

+ *gehiago ikusteko, egin klik hemen*



Sar zaitez
Gipuzkoako
bertsolaritzaren
mapara!

Aurrerantz!

Bertsolaritza errotuta dago: bertsolari, gai jartzaile, epaile, antolatzaile zein zale, harrobia handia da.


- 1995** Gipuzkoako Elkarteak antolatutako lehen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa
- 1999** Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa egin zen lehen aldiz; bertso eskola askoren sorrera eragin zuen
- 2002** Hezkuntza arautuko proiektuari ekin zitzaion Debagoieneko ikastetxeetan



Harremanetarako:
gipuzkoa@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/gipuzkoa

Tel. (+34) 943 67 05 75
Larramendi, 7. 20400 Tolosa



 [Ikusi bideoa hemen](#)

BERTSO ESKOLAK ERDIGUNEAN

Bertsolaritzaren mugimendua bizi-bizirik dago Gipuzkoan, eta jende asko biltzen du mugimendu horrek gainera. Gipuzkoako Bertsozale Elkartea mugimendu horren eragileetako bat da, baina ez da bakarra, ezta gutxiagorik ere. Gipuzkoako bertso mugimenduaren ezaugarrietako bat izan da eta da eragileen aniztasuna, eta, aniztasun horretan, aipatzekoak dira bertso eskolak.

Gipuzkoako herri askotan daude bertso eskolak, eta haietako batzuk bailaraka antolatuta ari dira lanean gainera. Elkartarekin elkarlanean jarduten dute batzuetan, eta mugimendu autonomo gisa beste batzuetan, elkarren babesean.

Aniztasun horrek kuantitatiboki eta kualitatiboki aberasten du bertsoaren mugimendu osoa Gipuzkoan, eta guztien artean elikatzen dute bertsoaren ekosistema. Haietatik sortzen dira bertsolari belaunaldi berriak, eta baita epaile, gai jartzaile eta antolatzaile berriak ere. Haiak antolatzen dituzte herrialdearen luze-zabalean urte osoan antolatzen diren ehunka saioetako asko; tartean, gazteei plazaratzeko aukera ematen dieten sariketak.

Garrantzitsua da, beraz, bertso eskolak erdigunean jartzea, eta haien beharrak kontuan hartzea. Hala nahi dutenei egituratzen lagundu eta behar dituzten baliabideak eskura jartzea dagokigu. Hortxe dago Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen oinarria eta abiapuntua. Elkartearen langintza nagusia da hezkuntza arautuan Gipuzkoa osoko ikastetxeetan haurrei bertsolaritzarekiko interesa piztea, eta proiektu horretan parte hartzen duten ikasleen eta inguruko bertso eskolen arteko zubi lanak egitea, etorkizunean ere bertso eskolak indartsu egon daitezen eta mugimenduak bizirik iraun dezan.

Saroi Jauregi Aiestaran

Nafarroako Bertsozale Elkartea

“2018an, Kultur Intereseko Ondasunaren izendapena lortu zuen bertsolaritzak Nafarroan. Administrazioaren begietara, zaindu beharreko altxorra da bertsolaritza. Horrek esperantza ematen digu.”



Gure berri...    

Kultur ondarearen aitortzak ematen digun babesarekin, bertsoalaritza zaintzen eta zabaltzen jarraituko dugu.

1984

sorrera

249

bazkide

2.900

ikasle,
58 ikastetxetan

300

ikasle,
47 bertso-eskolatan

Datuak: 2019-2020 ikasturtekoak



Bertso eskolen arteko topaketak



Gazte sariketak



Txapelketak eta bertsoaren erakuslehoak bideratzea



Bertsolaritza munduko emakumeak ahalduntzen

Egitasmoak:

- Bardoak
- Bertsoaroa
- Bertsokabi Sariketa
- Bertsopaper lehiaketa
- Mariano Izeta Sariketa

- Nafarroako Bertso Eskolen Eguna
- Nafarroako Bertsolari Txapelketa
- Nafarroako Eskolartekoa
- Negulekuak

+ *gehiago ikusteko, egin klik hemen*



Sar zaituz
Nafarroako
bertsolaritzaren
mapara!

Bidean!

- 1936** Bertsolari Eguna zenaren kanporaketa jokatu zen Elizondon
- 1960** Gerra osteko lehen txapelketa. Sei edizio jarraian
- 1979** Paulo Yantzi Sariketa Lesakan, egun ezagutzen dugun Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aitzindaria
- 1981** Xabier Amurizaren ikastaroa Iruñean, Zaldiko Maldikoko bertso eskolaren aurrekari
- 1984** Hezkuntza arautuko proiektuaren hastapenak
- 2012** Bardoak taldekakoaren sorrera
- 2018** Kultur Intereseko Ondasun izendatu zuen bertsolaritza Nafarroako Gobernuak



Harremanetarako:


nafarroa@bertsozale.eus

www.bertsozale.eus/nafarroa

Tel. (+34) 948 14 37 47

Baratzeetako zeharkalea, 2 behe. 31008 Iruñea



 Ikusi bideoa hemen

NAFARROAKO BERTSOLARITZA, EGONKORTZEKO BIDEAN

Orekaren sokan urte luzez kili-kolo egon ondotik, gaur egun gure egitasmoa egonkortze eta hazkunde fase batean dagoela erran dezakegu. Genituen herri, eskualde, bertso eskola eta ikasleak izaten jarraitzen dugu, eta, zorionez, berriak ere batu zaizkigu. Modu batean edo bertzean, lehen bertsoa iristen ez zen eskualde batzuetara ailegatu gara. Gaur egun, beraz, bertsolaritza ez dago eskualde bakar batzuetara mugatua, garai batean bezala. Gure egitasmoa hazi egin da: hazi hedapen geografikoan, hazi proiektuetan, eta hazi plaza berrien lorpenean ere. Bertsoa oinarri duten ekitaldiak Nafarroan zehar eskuin-ekzer, goiti-beheiti, ugariak dira, lekuak eta herriak ugariak izan diren bezalaxe.

2018an Kultur Intereseko Ondasunaren izendapena lortu zuen bertsolaritzak Nafarroan. Administrazioaren begietara, zaindu beharreko altxorra da bertsolaritza. Horrek esperantza ematen digu, gure jarduna zokoratuta geratu ez dadin, eta erakundeak bidelagun, gure proiektua modu duinean garatzen jarraitu dezagun. Bertsolaritzaren transmisioa da, hain justu, proiektu horren zutarr nagusietako bat. Arlo horretan egin den lan onaren adibide etorri da gazteen plazaratzea. Azken urteetan begi bistakoa da gure oholtzetan gazteen presentzia handitu dela, eta, beraz, ereindako haziak fruitua eman du. Hezkuntza arautuan, bertso eskoletan eta aisialdi eremuan egindako lanaren uzta jasotzen hasiak gara.

Bertsoa bidelagun hartuta, gure moduan Nafarroako euskalduntzeari ekarpena egiten ahalegintzen gara. Bertsoaren oinarria den hizkuntza indartzeko baliatzen dugu gure lanabesa, gure afizioa, gure interesa: bertsolaritza.

Alaitz Rekondo Ferrero

Gure proiektuen taula dinamikoan jolastu nahi? Aurrera...



Ahalduntze Bertso Eskola

Emakumezko bertsolarien jendaurreko plazaratzean lagungarri izateko helburuz jaio zen eskola; bosgarren ikasturtean, gai jartzaileei ere zuzendua.

Ahostegunak

Unibertsitate eremuan ahozko kultur sorkuntzaz gozatzeko espazioa: gaur bertsoa eta gaur zortzi kantua. Ostegunetan, badugu plana!

Ahots Baten

Bertsoarekin batera, antzerkia, kantua eta kontalaritza uztartzen dituen egonaldia: gazte sortzaileen Gabonetako oasia, Mintzolak eskainia.

Altxa Kopla Hori!

Egingo al dugu koplatan? Baiezkoa eman zuten 2017an, egin zen lehenean, Arabako hainbat bertsolarik, gai-jartzailek eta musikaririk.

Araba eta Gasteiz Bertsozale

Araba bertsozaletzeko helburuarekin, Arabako Bertsozale Elkarteak dirulaguntzak eskaintzen dizkie elkarteei eta kolektiboek saioak antolatzen. Bertsularien Lagunak Elkarteak ere badu antzerako ekimenik.

Arabako Bertso Kuadrila Artekoa

Aiaratik Arabako Errioxaraino, ondo pasatzea helburu, bertsolaritza lurralde guztian zabaltzen duen taldekako txapelketa.

Arabako Bertsolari Txapelketa

2000an hasi zen egun ezagutzen dugun txapelketa, zenbait urtetan Bizkaiarekin batera egin baitzen. Bi urtetik behin antolatzen dugu.



Bertso Eguna

Bardoak

Gai jartzen? Bertsoan? Antolatzen? Koloretsua, guztiok ondo pasatzeko lekua da Nafarroako taldekako txapelketa.

Barnetegiak

Inguru ludikoan bertsoaz gozatzeko abaguneak dira lurraldeetako elkarteek antolatzen dituzten barnetegiak.

BBK Sariketa

BBK-k, Ikastolen Elkarteak eta Bizkaiko Bertsozale Elkarteak antolatua, 1993tik. Eskualdeka eta taldeka, urtero, gazteentzat.

Bertso Eguna

1968an omenaldi kutsuarekin Donostian hasi zena, lurraldez lurralde dabilen bertsolaritzaren festa handia bilakatu da.

Bertso eskolak

Bertso saioak antolatuz, irakatsiz eta zaletuz, bertsolaritza tokian tokian eragiten duten taldeak dira, autonomoak gehienak.

Bertso Eskolen Eguna

Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna, egun, Bertso Egunarekin bat eginda ospatzen den arren, gazteen taldeentzako egunak egiten dira zenbait lurraldetan, maiz Eskolartekoarekin bat eginda.

Bertso Udalekuak

Ohiko udalekuetako ekintzak, bertsoak eta ahozko kultur sorkuntza uztartuta dituela... ez al da udarako aparteko plana? Bost txanda urtero.

Bertsoa Bizi Gazte

Gazteen sormena pizteko, bideoklipak eta zuzeneko emanaldiek osatutako lehiaketa, diziplinartekotasuna ardatz.



Bertsolari Txapelketa Nagusia

Bertsoaroa

Bertsolaritzaren erakusleho garrantzitsu bilakatu da Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen artean antolatzen den zikloa. Hiru hamarkada pasatxo bete ditu.

Bertsoa.eus

Bertso plaza sarean ere badagoelako: bertsolaritza egunean-egunean jarraitzeko hedabidea, bereziki, ikus-entzunezkoek elikatua.

Bertsoeskola.eus

Errimategia, doinutegia, gaiak,... bertso-
eskolen jarduna errazteko gunea dugu
hau.



Hitzetik Hortzera

Bertsolamintza

Gazteen plazaratzea, feminismoa, formatuen inertzia... heldulekuak hamaika eta iritziak ere bai. Bertsogintzari buruz aritzeko gunea.

Bertsolaritza ikastetxean

Ikastetxe publikoak, ikastolak, kristau eskolak... mota guztietako zentroetara iritsi da Bertsozale Elkartearen hezkuntza arautuko proiektua. 28.500 ikasle 2019-2020 ikasturtean, eta hazten goaz.

Bertxoko Sariketa

Bertsotan Bagare Sariketak utzitako lekua bete zuen Arabako Bertsozale Elkarteak eta Hala Bedi Irratiak elkarlanean antolatutako sariketa honek. 2007tik egiten da.

Bizkaiko Taldekakoa

2017tik, Bizkaian bakarkako txapelketa egiten ez den urteetan egiten da.

Bertsoikasgela.eus

Eskola orduetan bertsolaritza lantzeko baliabideak eskaintzen dizkie gunek Bertsozale Elkarteko irakasleei zein haien ikasleei.

Bertsokabi Sariketa

Xalto Sariketaren oinordekoa, 16 eta 30 urte bitarteko Iruñerriko gazteak ditu jomuga.

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Lau urtetik behin egiten dugun txapelketa erreferentea da egun bertsolaritzaren zein euskal kulturaren barruan.



Bertso Udalekuak

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

1958an Balendin Enbeitak irabazitako txapelketa hartatik, 2018an Onintza Enbeitak lortutako txapelera, etena eta eraldaketa izan ditu. Bi urtetik behin egiten dugu.

Epaielen eta gai jartzaileen formazioa

Txapelketan zein plazan aritzen diren epaile eta gai jartzaile taldeentzako formazio saioak egiten ditugu, beren jardunean baliagarriak diren irizpide, aholku eta tresnak eskainita.

Eskolatik plazara

18 urte arteko bertso eskoletako gazteek ikastetxeetan egiten dute kantuan, 12 urte dituzten ikasleak entzule direla. Lehenei bertsoetan egiteko plaza eskaintzen zaie, eta bigarrenei bertso saioa ezagutarazten zaie.

Europa bat-batean

2015ean eta 2016an gauzatutako nazioarteko kantu inprobisatuen topaketa. 2003ko Ahozko Inprobisazioa Munduan topaketa izan zuen aurrekari.

Gipuzkoako Herriartekoa

1999an egin zen lehena; esperientzia berreskuratuta, handik ia bi hamarkadara egin zen Gipuzkoan taldekako bigarren norgehiagoka.

Haizea dator

...eta ez dadila baretu. Bertsolari gazteei plazak emateko helburuarekin Bertsularien Lagunak Elkarteak antolatutako ekimena.

Eskolartekoa

Oinak buruan eta ideiak dilindan. Bertsotan egiten duen saguzarra urte hasieran hasten da hegalak astintzen, gazteak bertsoetan jarriz. Lurralde lurralde lehenik, ekainean denak batera elkartzen dituen arte.



Ahalduntze Bertso Eskola

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Lau urtetik behin egiten da, 1991tik. Aurretik, 1959an eta 60ko hamarkadan ere egin ziren Euskaltzaindiaren eskutik. Parte hartzaile ugari elkartzen ditu.

Gizonezkoen Bertso Eskola Feminista

2019an abiatutako eskola, gizonezkoen feminismoari buruzko oinarri teorikoa eskaintzeko.

Hernandorena Sariketa

Urteroko hitzordua bertsolari gazteentzat, Bertsularien Lagunak Elkartearen eskutik eta Teodoro Hernandorena bertsozalearen oroimenez.

Hitzetik Hartzera

Bertsozale Elkartek ETBekin elkarlanean ekoizten duen saioa. Hiru hamarkada beteak dituen bertsolaritza programa ezaguna.

Ikerketak bultzatzeko laguntzak

Iraganekoa ezagutzeko, oraingoa ulertzeko eta etorkizuneko aurreikusteko, ikerketa ezinbestekoa da. Ikerketa kontratuak, proiektu eta gradu amaierako sariak eta beste zenbait esleitzen ditugu.

Mariano Izeta Sariketa

Bi urtetik behin Baztanen egiten den sariketa; 2004an egin zen lehena.

Kulturartea Mapa

Bertsolaritza hemen, *payada* Argentinan edota *dondang sayang* Malakan. Bakanak baina asko gara munduan. Kantu inprobisatuen datu-basea eguneratzen ari gara dokumentazio zentrotik.

Mintzolako mintegiak

Ikerketak sustatu bakarrik ez, horiek ezagutzera emateko hitzaldi sortak ere antolatzen ditugu. Hitzordu nagusia? Udazkenean.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

1936an Bertsolari Eguna zeritzon ekitaldirako Elizondon egindako kanporaketak piztu zuen Nafarroan txapelketaren suziria. Bi urtetik behin egiten da.



Bertsolaritza ikastetxean

Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira

Munduko kantu inprobisatuen elkartruckerako saio sorta, haiena gurean ezagutzeko eta elkarrekin esperimentatzeko.



Bertsoeskola.eus

Oholtzapetik, entzulea epaile

Ikus-entzuleak erabakitzen du nork egingo duen bertsoan finalean; hori bai, azken saioan ez da epailerik izango eta ez da irabazlerik izendatuko.

Sakontze Bertso Eskola

Bertsogintzari lotutako hainbat alor berezitu lantzeko aukera ematen duen eskutik.

UPV/EHUko Uda Ikastaroak, Udako Euskal Unibertsitatea,...

Bertsolaritzaren presentzia ohiko bihurtu da maila akademikoan, unibertsitateetako erakusleihoak baliatuta; batez ere, udan antolatzen ditugun ikastaroei esker.

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Dokumentazioaren jiran eta ahozko kultur sorkuntzaren biran urtero antolatzen dugun saio irekia.

Xilaba (taldekakoa)

2018an egin zen lehena. Asmoa? Bertsolarien eta zaleen harrobia berritzea, bertsolaritzaz taldean gozatzeko beste aukera bat eskainita.

Plazara!

Bizkaian 18-24 urte arteko bertsolariekin egin nahi den bertso zirkuitua; gazteak ariko dira bertsoan zein antolatzaile lanetan. Eskualde guztietara iritsi nahi da.

UNIbertsoan

Eskola batetik besterako orduak kafetegian; eta orduan bertso emanaldiren bat badaukagu, askoz ere hobe!



Ikerketak bultzatzeko laguntzak

Xilaba

2008an hasita, 2010ean hartu zuen Xilaba izena Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarre elkartzen dituen txapelketak.

Komunikazioa



Bertsozale Elkarteak egitasmoak garatu bakarrik ez:
bertsozaleei eta gizarteari ezagutarazten eta azaltzen
dizkie.

Sarean gaude!

Bai, Interneten gaudelako...

Elkartea ezagutzen duzu?

www.bertsozale.eus



Harpidetu zaitez
gure buletinera!



...eta elkarrekin amarauneari garelako.

Ahozko lantegian ez dago atsedetik...

www.mintzola.eus

Saio bat antolatu nahi?

www.lanku.eus

Datorren asteburuko agenda, hemenxe:

bdb.bertsozale.eus

Bertso saio bat ikusi nahi dut sakelakoan

www.bertsoa.eus

Sarrera erosi behar dut ahaztu aurretik...

www.bertsosarrerak.eus

Gaur, eskolan

www.bertsoikaskela.eus

Eta bihar, bertso eskolan

www.bertsoeskola.eus



Argitalpenak

BertsoZalea berripapera

Bazkideoi, hilero, Elkartearen berri iristen zaigu.

Ale guztiak eskuragarri hemen

Proiektuetako liburuxkak

Txapelketek, Bertso Udalekuek, Eskolartekoak... beren aurkezpen argitalpenak izan ohi dituzte.

Esku artean duzun argitalpena bera!

Bertsozale Elkartearen egitekoa eta etorkizuneko pausoak azaltzeko egin duguna, besteak beste.

Beste zerbitzu batzuk



Harreman publikoak, azokak eta ekitaldiak

Hainbat erakunde, elkarte eta eragilerekin etengabeko hartu-emana dugu. Kultur sektoreko azoketan parte hartzen dugu, eta zabalkunderako hitzaldiak eta ekitaldiak antolatzen ditugu.



Publizitatearen kudeaketa


Gure publizitate espazioak eskaintzen ditugu eta gure proiektuak ezagutarazteko beste gune batzuetakoak baliatzen ditugu.



Prentsa bulegoa

Ezinbesteko bidelagunak ditugu komunikabideak. Euskal eta erdal hedabideekin etengabeko harremana daukagu, baita nazioartekoekin ere.

Harremanetarako: komunikazioa@bertsozale.eus

A large audience is seated in a hall, facing a stage. In the foreground, several people are seated at long tables, working on laptops. The text "Hedabideak bidelagun ditugu" is overlaid in white on the image. The background shows a stage with a large screen displaying "BIZKAIA ARENA" and other text. The overall atmosphere is professional and focused.

Hedabideak bidelagun ditugu

Etorkizuna marrazten



Elkartearen helburuak erdiesteko komunikazio estrategia garatuko da, garaira egokituz.



Barne kohesioari arreta berezia eskainiko zaio, bereziki:

- Elkarte guztien arteko komunikazio bateratuari
- Bazkideekiko harremanari
- Bertso eskolekiko hartu-emanari




Kanpo komunikazioari dagokionez, irudi bateratu eta askotarikoa (lurraldez, belaunaldiz eta generoz) landuko da, diskurtso propioa eta koherentea garatuz.

- Proiektuak komunikatu eta haien bitartez harreman publikoak, lankidetzak, Elkartearen diskurtsoa zein balioak plazaratuko dira. Beharren arabera, komunikazio lan esplizituagoak garatuko dira.

Harremanetarako: **komunikazioa@bertsozale.eus**



 Ikusi bideoa hemen

EZINBESTEKO TRESNA

Komunikazioa da bertsolarien langintza. Sormena eta intuizioa lagun, ideiak komunikatzen abilak dira, gizartean sentimenduak, pentsamenduak eta, zenbaitetan, eraldaketak eraginez.

Komunikaziorako berezko sena izanik, Elkartea sortzea erabaki zenean, argitasun handiz marraztu ziren oinarriak.

Eremu publikoari dagokionez, bertsolari eta Elkarteko kide bakoitzak bere ideologia eta iritzia komunikatzeko askatasun osoa izan arren, mugimendu gisa, gainontzeko agente egituratuekiko -alderdi politiko, sindikatu, gizarte eragile...-, autonomiaz funtzionatzea adostu zen.

Gizartearen gorabeheren aurrean, lemari eustea ez da beti erraza izan, eta, hala ere, ahots askoren bilgune den mugimendu honek asmatu du barne eta kanpo tentsioak kudeatzen. Hiru hamarkadako ibilbide arrakastatsua da horren adibide.

Ikusgarritasunari dagokionez, hastapenetik, telebista saio batek bertsolaritzaren biziberritzean izan zezakeen eraginkortasunari buruzko intuizioa izan zuen. Bidean EITBk eta Elkarreak elkar ulertzeko egindako ahaleginaren emaitza da Hitzetik Hortzera telebista programa beterano eta, aldi berean, gaztea. Ez da izan ikus-entzuzkoen alorrean egindako apustu bakarra, ardatz estrategikoa dela zinez sinetsita ari baikara lanean.

Bertako zein atzerriko hedabideekin lankidetzan ari gara, bertsolaritzaren proiektua zabaltzen: ezinbesteko bidelagunak ditugu, eta bihoakie gure eskerrik beroena.

Internerako jauzira egokitu eta zerbitzu askotarikoa eskaintzeko hainbat atari garatu eta etengabe elikatzeko baliabideak jarri izana adierazgarria da, baita profesionalz osatutako hedapenerako eta komunikaziorako sailak garatu izana ere.

Eremu publikoa bezainbeste edo gehiago zaindu du Elkarreak barne kohesioa. Egitura konplexua du: erakunde, lurralde, rol, genero, belaunaldi, ahots... anitzeko mugimendua da. Izaera konplexu horri esker da Elkarrea hain emankorra, eta alde guztien arteko etengabeko komunikazioaren joan-etorria da arrakastarako giltza.

Oinarriak sendo izan arren, kanpo zein barne komunikazioan lema etengabe berrikustea ezinbestekoa da. Egin berri den gogoeta estrategikoan, hobetu edo garatu beharreko lan lerroak identifikatu ditugu, eta hasiak gara bide horiek urratzen... komunikazioa ezinbesteko tresna baita.

Estibalitz Esteibar Iriondo

Hedapena




Bertsoa lau haizetara zabaltzeko ezinbestekoak dira ikus-entzunezkoak. Saioak grabatu, ekoitzi eta zabaldu egiten ditugu. Urtero, 100 bertso ekitalditik gora.

bertsoa.eus

Plaza sarera ekarri dugu www.bertsoa.eus atariaren bidez. Bertso saioen ikus-entzunezkoek hartzen dute leku gehien, elkarrizketekin eta albisteekin batera. Bertsolaritza egunean-egunean jarraitzeko hedabidea da.

Jarraitu iezaguzu!



Urtean **2.000** eduki, **300.000** bisita eta **120.000** erabiltzailetik gora ditu.

Hitzetik Hartzera


ETBrekin elkarlanean ekoizten den telebista programak hiru hamarkadako bidea egina du. Ordubeteko saiok hainbat etxetako egongelak eta sukaldeak bertso plaza bihurtzen ditu igandeetan.



Dokumentalak

Besteak beste, Kurdistango, Mexikoko edota Sardiniako kantu inprobisatuak ezagutzeko ikus-entzunezkoa da **Mundu bat ahoz aho**.

[Ikusi bideoa hemen](#)



Zuzenekoak eta tematikoak

Hainbat herrialdeetako txapelketak zein Txapelketa Nagusia zuzenean eskaintzen dira. Gainera, gureak diren edo beste hedabide batzuek eskaintzen dizkiguten erakusleihoak baliatuta, beste programa berezi zenbait ere prestatzen ditugu: Lazkao Txiki, denboraren ispilutik; Aulki Jokoa; Oholtzapetik...

[Ikusi bideoa hemen](#)

Dibulgaziokoak

What is bertsolaritza? Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean eta Laboral Kutxaren babesarekin gauzatutako proiektua da. Ingelesez garatu da, bertsoa eta bertsolaritza atzerrian ezagutarazteko, eta azpigituluak dauzka ingelesez zein euskaraz, gazteleraz eta frantsesez.

[Ikusi bideoa hemen](#)



Beste zenbait komunikabidetan bertsolaritzari buruzko saioak egin daitezten, edukia zerbitzatzzen dugu.



BAPATEKO UNIBERTSOA – Arraio Irratia



BERTSOINKA – Xorroxin Irratia



BERTXOKO - Hala Bedi



(H)ARI NAIZELA – Tolosaldeko Ataria



HITZA JOLAS – Euskadi Irratia



POTTO – Bilbo Hiria Irratia



PUNTTUKA – Euskal Irratiak

Etorkizuna marrazten



Bertsogintza eta bertsolaritza hedatzeko garaian garaiko bitartekoak erabiliko ditugu.



Publiko motaren arabera eduki askotarikoak ekoitziko ditugu.




Hedabideekin eta ekoiztetxeekin elkarlanean bertsolaritza zabaltzen jarraituko dugu.

Harremanetarako:

hedapena@bertsozale.eus

hedabideak@bertsozale.eus



 Ikusi bideoa hemen

BERTSOA ANIZTASUNAREN PLAZAN

Bertsogintzaren proiektio soziala lehenbat izan da hasieratik Bertsozale Elkartearen proiektuan, kultur diziplina baten garapenean duen garrantziaren jakitun. Sortu eta gutxira, bertso programa iraunkorra jarri zuen abian euskarazko telebista publiko jaio berri hartan. XXI. mendearen hasieran, bertso sarean zebilen bertsogintzako komunikabide espezializatuan barrena, eta Euskal Herriko zein nazioarteko komunikazio munduarekin lankidetzara sare oso zabala ehundu du. Antxoka Agirrek *Bertsolaritzaren historia: hedabideratzea, eragiletza eta proiektua (1823-2018)* ondorioztatzen du bertsolaritzaren azken 150 urteetako historian konstante bat dela garaian garaiko bertsolaritza eragileak azti ibili izana bertsoaren eta bertsolaritzaren gizarteratze lan horretan.

Proiektio soziala ez da ez berezkoa eta ez neutroa ere. Bertsolaritzaren historian hauspotu eta isildu denak ere erakutsi digu zerbait horren inguruan. Hortik ere bagatoz denok, baina gizarte proiektio hori adostasun esplizitu eta zabal baten gainean eraikitzeko bidea ere izan da Bertsozale Elkartearen bidea. 2018ko gogoeta estrategikoan lau kontzeptuk laburbildu zuten hedapenaren ildoak: aniztasuna du oinarri eta, feminismoa, lurraldetasuna eta belaunaldiartekotasuna zehar-lerro.

Herri guztietako jaialdietako bertsoak, buruz buruko eta taldekako txapelketak, historiako emakume bertsolarien bilduma, gazte sariketak, Ez da kasualitatea saio musikatuak, Bertso Transaioa, Bollo bertso saioa, zahar etxeetako Adin adin proiektuko bertsoak, bertso zientzia ekitaldiak, Flamenkoa eta bertsoa, gazte jaialdiak, Eskolartekoa, Plazatik Gaztetxera, bertso jarri emanaldiak... Urtero 100 bertso ekitalditik gora jaso eta zabaltzen ditugu Hitzetik Hortzeran eta Bertsoa.eus-en; 200 bertsolaritik gora agertzen dira telebistako eta sareko plazetan. Bertsolaritzari buruzko 50 gai inguru lantzen ditugu urtean.

Bertsolaritzaren hedapena garaiko baliabide teknikoetara egokitzea giltzarria da, noski, baina hori bezain garrantzitsua da [edo are garrantzitsuagoa] bertsoaren proiektio soziala garaiko oinarri eta irizpide esplizitu eta adostuen gainean egiten jarraitzen asmatzea. Eguneratze teknologikoaren aukera horiek gure hedapen proiektuetan txertatzen jarraitu behar dugu. Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren aniztasuna egunero eta oro proiektatu eta elikatzeko ariketa finagoa da, apreziatzeko ere ez beti erraza. Hor jokatzeko dugu partida.


Finantzak eta lanbidetzak

Ekuazio integrala da Bertsozale Elkartearena. Errezetak ez du sekreturik: lanerako grina itzela duen pertsona multzoa eta mota guztietako erakundeekiko elkarlana.

Finantzak


Bazkideon ekarpena eta gainontzeko finantza iturriak ezinbestekoak dira bertsoalaritzaren proiektua egikaritzeko.

Horri egunero soldatapean ari den taldearen eta borondatezko kideen ekarpena erantsiz, emaitza itzela da, zenbatzen oso zaila. Agerikoak diren datuak baino ez dira, beraz, paperera ekar ditzakegunak. Hona hemen.



2020ko aurrekontu bateratua:
4.307.643 €


2020ko aurrekontuaren erabilera:
4.307.643 €




Oharra: COVID-19aren aurretik landutako aurrekontua da. Aldaketak aurrerago adieraziko dira.

Pertsonaz osaturiko mugimendu bizia

Bazkideak 2020/03/06



Bazkideen bilakaera



Soldatapeko 125 laguneko lantaldea, lanaldi mota desberdinekin.



Borondatezkoak ehunka, erabaki guneetan, plazak antolatzen...

Erabaki organoak

- Bertsozale elkarteetako
 - Batzar nagusiak
 - Zuzendaritza batzordeak
- Lankuko administrazio kontseilua
- Mintzola fundazioko patronatua



Harremanetarako:
administrazioa@bertsozale.eus

Etorkizuna marrazten



Oinarri soziala zabaltzeko lan egingo dugu.



Onura orokorreko elkarte bilakatzeko bidean ariko gara.



Bertsozale elkarte guztien arteko elkarlana eta oreka bilatuko dugu.




Gizarte mugimenduaren eta hari lotutako zerbitzu izaerako enpresa beregainen arteko egituraketa garatuko dugu.



Autofinantzaketa landuko dugu.



Egonkortasuna bermatzeko lanean ariko gara.



 Ikusi bideoa hemen

MUGIMENDUA OSATZEN DUGUN PERTSONEN EKARPENA DA KAPITALIK HANDIENA

2.540 bazkidek osatzen dugu Bertsozale Elkarte. 125 soldatapeko langile borondatedunek eta borondatezko ehun langilek baino gehiagok.

Funtsean, norbanakoz egituratutako taldeak gara, taldez osatutako egiturak, ehuntze konplexu bezain soila osatzen duen sare bat gara, eta gizarte mugimendu bat osatzen dugu, bertsolaritza geroratzeko sortutako gizarte mugimendu bat. Arrate Illarok **“Elkarlana zabaldu eta indartzera begira”** artikuluan esan bezala, bertsolaritzaren barruko sare horrek guztiak elikatzen baitu bertsolaritza bera.

Eta sarea pertsonok elikatzen dugu. Asmatu dugu nonbait oinarri soziala zabaltzen, zerbait eman nahi duena lanean jartzen; protagonismoa ematen. Eta horretan segi behar dugu, elikatzen jarraitu ezean, nekez eutsiko baitio gure amaraunak.

Elikatzen dugu behien aulkiak aipatzetik hasi eta behian aulkiak jartzera pasaz, edo behian aulkiak jartzen hasi eta auskalo zein aulki aipatzera igaroz. Norberak dakien, ahal duen, nahi duen eta posible zaion neurri eta doinuan.

Mugimendua osatzen dugun pertsonen ekarpena baita kapitalik handiena, oinarrizkoa eta oinarria.

Xabi Igoa Eriz

Lankidetzak

AEK • Amasa-Villabonako Udala • Aquitania Euskadi • Arabako Foru Aldundia • Athletic Fundazioa • Auzo elkarteak • Azkue Fundazioa • BBK • Bertso eskolak • Bertsolari aldizkaria • Bizkaiko Foru Aldundia • CAMPOS - Cordinamentu Artes Musicales et Poétiques de tradizioni Orali de Sardigna • Cor de Carxofa • Deustuko Unibertsitatea • Donostia 2016 • Elkar • Emakunde • Eresbil • Etxepare Euskal Institutua • Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak • Euskal Hirigune Elkargoa • Euskal Kantuzaleen Elkarteak • Euskal Kultur Erakundea • Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoen Elkarteak • Euskaltzaindia • Euskaltzaleen Topagunea • Euskara elkarteak • Euroeskualdea • Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua • Eusko Jaurlaritza • Fundación Antonino y Cinia • Galtzagorri Elkarteak • Gazte asanbladak • Gipuzkoako Foru Aldundia • Guraso elkarteak • Habe liburutegia • Hedabideak • Hernandorena Kultur Elkarteak • HUHEZI • Ikaselar • Ikastetxeak • Ikastolen Elkarteak • Institut Canadien • Iparra-Hegoa • Jai batzordeak • Kilometroak • Kuadrillak eta mankomunitateak • Kultura elkarteak • Kutxa Fundazioa • Labayru • Laboral Kutxa • Laponte-Ecomuseu • Larraldea • Metro Bilbao • Mikel Laboa Katedra • Mintzalagun taldeak • Nafarroako Gobernuak • Nafarroako Unibertsitate Publikoa • Oihaneder Euskararen Etxea • Oral Tradition • Real Sociedad Fundazioa • Seaska • Soziolinguistika Klusterra • The Center for Basque Studies at the University of Nevada • Udalak eta herriko etxeak • UEU – Udako Euskal Unibertsitatea • UNAV – Universidad de Navarra • UPNA – Nafarroako Unibertsitate Publikoa • UPV/EHU – Euskal Herriko Unibertsitatea • Vital Gizarte Ekintza • Zenbat Gara • ...

Lankidetzak guztiak, eguneratuta, [hemen](#)

Sei elkartek osatzen dugu Bertsozale Elkarte; eta beste hainbat elkarte, erakunde eta hedabiderekin ari gara lanean bertsolaritzaren ekosisteman



Eta horien barruan, sortzaile, antolatzaile, **bazkide** eta hamaika norbanako gehiago. Bai, gure baitan dago **auzolana**; eta ideien eta baliabideen batuketa horrek proiektuak aberasgarriago egiten ditu.

Eskerrik asko denoi Bertsozale Elkarteari eta bertsolaritzari egindako ekarpenagatik.



▶ Ikusi bideoa hemen

ELKARLANA ZABALDU ETA INDARTZERA BEGIRA

Bertsozale Elkarteak eguneroko oinarri du elkarlana, sorreratik. Batetik, noski, bertsozale ororen artekoa: izan plazaz plazako bertsolari, bertso eskolako kide, saio antolatzaile, entzule, gai jartzaile, tokian tokiko zein lurralde mailako eragile, borondatezko zein liberatu, belaunaldi berrikoa zein ibilbide luzekoa. Bertsolaritzaren barruko sare horrek guztiak elikatzen du bertsolaritza bera. Inor gutxik jarriko luke zalantzan bertsolaritzaren gaur egungo egoera urte luzetan elkarrekin egindako lanaren ondorio dela.

Era berean, euskalgintzan eta kultur gintzan ari diren bestelako eragileekin ere aspaldikoa bezain naturala du lankidetzaren Elkarteak: gizarte eragileekin, erakunde publikoekin zein kultur gile eta norbanakoekin aritu izan da, aritzen da eta arituko da eskuz esku lanean. Edonola ere, Elkarlearen datozen urteotako helburuetako bat elkarlan hori zabaltzea eta indartzea da.

Elkarlana zabaltzea. Orain arteko aliatuak ahaztu gabe, batez ere kultur gintzako eragile berriekin zabaltzea nahi ditugu lankidetzarako aukerak. Bertsolaritzak bestelako kultur jardunekin aritu behar du, gertutik, elkar elikatu ahal izateko. Eragile horiengana heldu, elkar ezagutu eta sinergiak bilatzeko ari gara lanean.

Elkarlana indartzea. Lankidetzaren bide berriak zabaltzeaz gain, martxan ditugun urteko aliantzak indartzea nahi ditugu. Begia helburuetan jartzeaz gain, egiteko moduetan jartzea eskatzen digu horrek, (des)jokastea eta ohiturak astintzea, eta gogoz gaude horretarako. Elkarlan dinamika jarraituak eraiki nahi ditugu, dirulaguntza eta zerbitzu kontzeptu eta mugetatik harago. Elkarrekin marraztutako bide orriak eta helburuak behar ditugu kultur gintzan, euskalgintzan zein hezkuntzan ari garen eragile guztiok. Eta bakoitzak bere funtzio, aukera, autonomia eta erantzukizunetik, estrategia partekatutako eraikitzeke egin nahi du lan Bertsozale Elkarteak.

Arrate Illaro Etxebarria



Kale Nagusia, 70
20150 Amasa-Villabona

bertsozale@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus
T. (+34) 943 694 129